EGITEN JAKIN
PROIEKTUA

# Euskara Abian

Lehen Hezkuntzarako 1. mailarako Euskara Abian liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarte**ren eta **Teresa Grence Ruiz**en zuzendaritzapean sortu, diseinatu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA
**Idoia Aranberri**
**Joseba Santxo**
**Ainhoa Basterretxea**

IRUDIAK
**Gorka Aranburu**
**Alex Macho**
**Enrique Morente**
**Kepa Orbe**
**Piru Velasco**

EDIZIOA
**Ainhoa Basterretxea**
**Joseba Santxo**

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA
**Joseba Santxo**
**Maite López-Sáez**

LEHEN HEZKUNTZA 1

SANTILLANA
ZUBIA

# OINARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzen zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

## ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Matematikarako gaitasuna

Zientziarako gaitasuna

Teknologiarako gaitasuna

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Arterako gaitasuna

Mugimendurako gaitasuna

## ZEHAR-GAITASUNAK

Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna

Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna

Elkarbizitzarako gaitasuna

Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna

Izaten ikasteko gaitasuna

# Aurkibidea

**Ongi etorri unitatea.** Oporretatik bueltan

## Lehen hiruhilekoa

1 Ikusi eta ikasi ....6
2 Etxean goxo ....22
3 Kioskoa ....38
4 Munduan zehar ....54
5 Badatoz Gabonak ....70

Lehen hiruhilekoaren berrikusketa ....86

## Bigarren hiruhilekoa

6 Itsasbazterrean ....6
7 Txotxongilo-emanaldia ....22
8 Parkean saltoka ....38
9 Plisti-plasta ....54
10 Mela-mela eta blai-blai ....70

Bigarren hiruhilekoaren berrikusketa ....86

## Hirugarren hiruhilekoa

11 Bai harrigarriak! ....6
12 Gure lagunak ....22
13 Landare artean ....38
14 Zeru-lurrei begira ....54
15 Dinbi eta danba! ....70

Hirugarren hiruhilekoaren berrikusketa ....86



# Edukien mapa


| Unitateak | Irakurgaia | Hitzen habia | Goazen idaztera! |
|---|---|---|---|
| **ONGI ETORRI UNITATEA: Oporretatik bueltan** | | | |
| 1 **Ikusi eta ikasi** 6<br>*Berandu eskolara* | Ipuina: *Lehoi bat eskolan* 8 | • Jolastokia 10 | • Agurtzeko erak 12 |
| 2 **Etxean goxo** 22<br>*Albiste beldurgarria* | Ipuina: *Hansel eta Gretel* 24 | • Etxea 26 | • Gustuak adieraztea 28 |
| 3 **Kioskoa** 38<br>*Txominen kioskoan* | Ipuina: *Txakur txiki zaunkaria* 40 | • Auzoko dendak 42 | • Nahiak adieraztea 44 |
| 4 **Munduan zehar** 54<br>*Aireportuan* | Ipuina: *Ezusteko txangoa* 56 | • Garraioak 58 | • Informazioa eskatzea eta ematea 60 |
| 5 **Badatoz Gabonak** 70<br>*Gabonetako jaialdia* | Ipuina: *Lagun berria* 72 | • Familia 74 | • Gizalegez eskatzea 76 |
| **LEHEN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA** 86-88. **Entzungaia:** ***Hartzaren bidaia*** | | | |
| 6 **Itsasbazterrean** 6<br>*Hondartza bakartia* | Olerkia: *Itsas txori zuria* 8 | • Itsasaldea 11 | • Usteak adieraztea 12 |
| 7 **Txotxongilo-emanaldia** 22<br>*Txotxongiloak* | Herri-ipuina: *Zorte oneko eguna* 24 | • Herria 27 | • Harridura adieraztea 28 |
| 8 **Parkean saltoka** 39<br>*Galtzaile txarra* | Herri-ipuina: *Baratxuri* 40 | • Nolakoak garen 43 | • Konparazioak egitea 44 |
| 9 **Plisti-plastaka** 54<br>*Bagoaz igeri egitera!* | Herri-ipuina: *Raluk eta hartza* 56 | • Sendagilearenean 59 | • Baimena eskatzea 60 |
| 10 **Mela-mela eta blai-blai** 70<br>*Egun euritsua* | Herri-ipuina: *Euria eta igelak* 72 | • Eguraldia 75 | • Deskribapenak egitea 76 |
| **BIGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA** 86-88. **Entzungaia:** ***Galtzagorriak*** | | | |
| 11 **Bai harrigarriak!** 6<br>*Donostiako aquariumean* | Ipuina: *Erro olagarroa* 8 | • Arrantza 11 | • Ahalmena adieraztea 12 |
| 12 **Gure lagunak** 22<br>*Animalien babeslekua* | Alegia: *Belea eta azeria* 24 | • Esapideak 27 | • Orientabideak ematea 28 |
| 13 **Landare artean** 38<br>*Nekazari-lanetan* | Ipuina: *Filotea* 40 | • Esanahi bereko aditzak 43 | • Agindauk ematea 44 |
| 14 **Zeru-lurrei begira** 54<br>*Zientzien museoan* | Herri-ipuina: *Krokodiloa eta eguzkia* 56 | • Esanahi bereko hitzak 59 | • Aholkuak ematea 60 |
| 15 **Dinbi eta danba!** 70<br>*Erdi Aroko azoka* | Herri-ipuina: *Mariren hitza* 72 | • Hitzak eta definizioak 75 | • Asmoak adieraztea 76 |
| **HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA** 86-88. **Entzungaia:** ***Nasrudin kokoloa*** | | | |

# Abian 1


| Entzun dezagun! | Goazen abestera! | Egiten Jakin | Hitza jolas | Amaierako jarduerak |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| • *Goizean goiz* 14 | • *Ongi etorri ikastolara!* 15 | • Zerrendak 16 | • Hitz-jolasa, olerkitxoa eta kantatxoa 18 | • *Astoa eta liburuak* 20 |
| • *Amesgaiztoa* 30 | • *Nire etxea* 31 | • Oharrak 32 | • Olerkitxoa, igarkizunak eta aho-korapiloa 34 | • *Amaiaren deia* 36 |
| • *Ezusteko jaia* 46 | • *Bagoaz azokara* 47 | • Gonbidapena 48 | • Bertsoa eta olerkia 50 | • *Bazkaltzeko gon-bidapena* 52 |
| • *Amona asmatzailea* 62 | • *Amona Agustina* 63 | • Fitxak 64 | • Olerkia, aho-korapiloa eta igarkizunak 66 | • *Landerren bizikleta* 68 |
| • *Olentzeroren lanbidea* 78 | • *Olentzeroren ska* 79 | • Olentzeroren gutuna 80 | • Abestia, aho-korapiloa, olerkia eta igarkizuna 82 | • *Olentzeroren ipuina* 84 |
| | | | | |
| • *Mendira!* 14 | • *Ikusi mendi-zaleak* 15 | • Tokien deskribapena 16 | • Olerkia, zotz egiteko kanta eta atsotitzak 18 | • *Getariako sagua* 20 |
| • *Badatoz Inauteriak* 30 | • *Zanpantzarrak* 31 | • Kartela 32 | • Olerkia, aho-korapiloa eta atsotitza 34 | • *Irratiko zozketa* 36 |
| • *Kalejira* 46 | • *Munduko dantzak* 47 | • Egunerokoa 48 | • Olerkia, igarkizunak eta aho-korapiloa 50 | • *Urtebetetze eguna* 52 |
| • *Zer izango zara handitan?* 62 | • *Lanbideak* 63 | • Errezeta 64 | • Aho-korapiloa, txistea, olerkia eta hitz-jolasa 66 | • *Askaria* 68 |
| • *Trumoiak eta tximistak* 78 | • *Ekaitza* 79 | • Gertakariak 80 | • Olerkia, igarkizunak eta olerkitxoa 82 | • *Egun petrala* 84 |
| | | | | |
| • *Osaba arrantzalea* 14 | • *Isil-isilik dago* 15 | • Ipuinen hasierak eta amaierak 16 | • Bertsoa, hitz-jolasa, olerkia eta igarkizunak 18 | • *Urrezko arraina* 20 |
| • *Aitonaren erlauntza* 30 | • *Erleak* 31 | • Ipuinetako pertsonaiak 32 | • Hitz-jokoa, olerkia eta igarkizunak 34 | • *Azeri azkarra* 36 |
| • *Kometa hegalaria* 46 | • *Haize harroputz* 47 | • Ipuinetako gertakariak 48 | • Bertsoa, olerkia, igarkizunak eta aho-korapiloa 50 | • *Zuhaitz txiki itsusia* 52 |
| • *Aurrera mendi-zaleak!* 62 | • *Hara non diren!* 63 | • Ipuinetako elkarrizketak 64 | • Olerkia, koplatxoa, txistea, igarkizuna eta atsotitza 66 | • *Eguzkiaren oparia* 68 |
| • *Laster oporrak!* 78 | • *Ondo ibili oporretan!* 79 | • Ipuina 80 | • Hitz-jokoak, olerkia eta hitz-jolasa 82 | • *Herensugea* 84 |

# 1 Ikusi eta ikasi




- Zer dago ikasgelan?
- Zer dago apalategian?
- Nolakoa da andereñoa?
- Zertan ari dira ikasleak?
- Ikasgelak ba al du zurearen antzik?

**EGITEN JAKIN**

**ZERRENDAK**

Unitate honetan zerrendak osatzen ikasiko duzu.



mahaia



umea




atea




bat




batuketa



ebaki

# Bi belarri entzuteko...

**1** Entzun *Berandu eskolara* eta erantzun.

- Zein animaliak egin du ihes zirkutik? Aukeratu.

☐ 

☐ 

☐ 

- Nork harrapatu du animalia? Inguratu.





**2** Kontatu zure hitzez. Zer gertatu zaio Amaiari berandu heltzeko?

**3** **Balioetan heztea.** Agurtzea.

- Zer esaten diezu ikaskideei goizean ikasgelan sartzean?
- Eta gurasoei oheratzean?



1 Entzun eta irakurri ipuina.

# LEHOI BAT ESKOLAN




IRATIK EZ ZUEN GOGOKO ESKOLARA JOATEA.

BEHIN, LEHOI BAT TOPATU ZUEN KALEAN ETA HAREKIN JOAN ZEN ESKOLARA.

PATIOAN MUTIL HANDIKOTE BAT IKUSI ZUTEN, IRATI IKARATZEN ARITZEN ZENA BETI. LEHOIAK ORRO IKARAGARRIA EGIN ZION MUTILARI.

ORDUTIK, MUTILAK BAKEAN UZTEN DU IRATI, ETA NESKATXA POZ-POZIK JOATEN DA ESKOLARA.

2 Margotu. Non topatu zuen lehoia Iratik?







3 Idatzi 1, 2 eta 3, eta azaldu. Zer gertatu zen?

☐ 

☐ 

☐ 

4 Aukeratu eta kopiatu. Zer gertatu da azkenean?

☐ Mutilak Irati ikaratzen jarraitzen du.

☐ Mutilak bakean utzi du Irati.

**1** Aztertu irudia eta kokatu zenbakiak irudietan.

## JOLASTOKIA



1. saskia
2. atea
3. zabua
4. txirrista
5. kulunka
6. baloia
7. pilota
8. soka

**2** Aztertu irudia eta osatu testutxoa hitzekin.

nekatuta | pozik | aspertuta | izerditan



Ibon ______ dago bazter batean.

Ane ______ dabil pilotarekin jolasean.

Unai ______ dago, eta Nahia, berriz,

oso ______.

**3** Aukeratu erantzun egokia.

Nola dago betilun dagoena?

- [ ] alai
- [ ] triste



Noiz egoten zara zu betilun?

1 Irakurri eta kopiatu hitz egokiak. Zer dio maisuak?

Kaixo, neska-mutilok!
Arratsalde on!
Zer moduz zaudete?

Gau on, aitatxo.
Ondo lo egin eta
bihar arte.



2 Kopiatu leku egokian. Noiz esaten dugu...

Gau on, ondo lo egin!

Agur, laster arte!

Kaixo, zer moduz?

Egun on!









**3** Kopiatu elkarrizketa.



Kaixo, aspaldiko! Zer moduz zaude?



Ni ondo, eta zu?



Ni ere bai. Tira, banoa. Agur!



Agur, bai. Hurrengora arte!

**4** Pentsatu eta idatzi. Zer esango ote dute?

**ESKOLARA HELTZEAN**



**ETXERA ITZULTZEAN**



## ENTZUN DEZAGUN!

**1** Entzun *Goizean goiz* testua.






**2** Idatzi E (egia) ala G (gezurra) den.

Ibairi ez zaio eskolara joatea gustatzen. ☐

Orain, berandu oheratzen da Ibai. ☐

Andereñoa oso jatorra iruditzen zaio. ☐

**3** Inguratu. Zein iruditan ari da Ibai aharrausika?

A



B



**4** Azaldu. Gustura joaten al zara eskolara?

**1** Entzun eta abestu.

## ONGI ETORRI IKASTOLARA!

Agur, agur, aurtengo oporrak!
Agur, hondartza eta mendi-tontorrak.
Agur, marrubizko izozki gozoak.
Agur, erreka eta basoak...

Bihar goiz-goizetik,
logura kendu ezinik,
korrika irtengo naiz etxetik.

Motxila sorbaldan,
irribarretsu noa
ikastolarako bidean.

Kaixo, egun on, Amaia eta Ibai.
Kaixo, Maialen eta Unai.
Kaixo, egun on, andereño eta maisu,
denontzat dakartzat mila musu.



## EGITEN JAKIN

### Zerrendak

**1** Idatzi zerrenda bakoitzaren izenburua.

IPUINAK | ABESTIAK

______________________

- Sorgina Pirulina.
- Ikusi mendizaleak.
- Olentzero.
- Astoa ikusi nuen.
- ______________________.
- ______________________.

______________________

- Hiru txerrikumeak.
- Txanogorritxo.
- Martin Txiki.
- Ali Baba.
- ______________________.
- ______________________.

**2** Osatu goiko zerrendak hitz hauekin.

Ahatetxo itsusia | Zorionak zuri | Pintto, Pintto | Kukubel

**3** Aukeratu eskolako tresnak eta idatzi zerrendan.

| | | |
|---|---|---|
| ☐ ziba | ☐ borragoma | ☐ arkatza |
| ☐ soka | ☐ kromoak | ☐ koadernoa |
| ☐ pilota | ☐ margoak | ☐ panpina |

ESKOLAKO TRESNAK



**4** Idatzi zure irakasleen zerrenda.




NIRE IRAKASLEAK

**1** **Hitz-jolasa.** Esan azkar eta idatzi zure izena.



Hara! Hara! Hara!
Ni eta zu bi gara.
Ni A naiz.
Eta zu nor zara?

Ni ______________________ naiz.

**2** **Olerkitxoa.** Osatu olerkitxoa bokalekin.

Aaaa!
Jolastuko gara!
______________
Egingo dugu barre!
______________
Ondo-ondo ibili!
______________
Egingo dugu salto!
______________
Ondo pasatuko dugu!

Iiii!
Aaaa!
Eeee!
Oooo!
Uuuu!



**3** **Kantatxoa.** Osatu abestitxoa zenbakien izenekin.

1 Bat : Matxin Parrat.
2 ______ : Mitxel Ipurdi.
3 ______ : kolko bete diru.
4 ______ : iko melau!
5 ______ : koxkotean koxk.
6 ______ : korta bete behi.
7 ______ : buru bete bazpi.
8 ______ : katilu bete zorri.
9 ______ : katuaren larrua eratzi.
10 ______ : mar-mar.



**1** Aztertu irudia adi-adi, eta inguratu saskia eta atea.



**2** Idatzi hitzak irudietan, elkarrizketa osatzeko.

Gero arte! | Kaixo! | Agur! | Zer moduz?





**3** Entzun *Astoa eta liburuak* testua, eta markatu.



Zer jan zuen ipuineko astoak?

- [ ] Koadernoa.
- [ ] Liburuak.

Zerbait ikasi al zuen?

- [ ] Bai, asko.
- [ ] Ezer ez.

Nola egiten dute astoek?

- [ ] Irrintzi.
- [ ] Arrantza.

**4** Idatzi aurten dituzun ikasgaien zerrenda.

IKASGAIEN ZERRENDA



**5** Azaldu. Zein ikasgai duzu zuk gogokoen?